



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **LEIOAKO UDALA ERATZEKO 2007ko EKAINAREN 16an EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

Leioako udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta zazpiko ekainaren hamaseiko goizeko hamarrak direla, lehenengo deialdian, 5/1985 Legearen 195. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, udala eratzeko batzarra egitearren, honakoak batzartu dira:

### **ZINEGOTZIAK**

<b><u>IZENA:</u></b>	<b><u>ALDERDIAK</u></b>
Eneko Arruebarena Elizondo .....	EAJ-PNV
Jesús Bilbao Curiel .....	EAJ-PNV
Ainara Urbieto Bergara .....	EAJ-PNV
Beatriz Resa Bardeci .....	EAJ-PNV
Iñaki Goikoetxea Gordo .....	EAJ-PNV
M <sup>a</sup> Carmen Urbieto González .....	EAJ-PNV
Jon Loizaga Cayero .....	EAJ-PNV
Jon Peli Lazkano Alzaga .....	EAJ-PNV
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta .....	EAJ-PNV
Ainara Guzmán Urrutia .....	EAJ-PNV
José Manuel Toledo Cañamero .....	PSOE
Elsa López de Torre Campo .....	PSOE
Luis M <sup>a</sup> Pérez Pérez .....	PSOE
Pilar Grados García .....	PSOE
J. Alfonso López Arevalillo .....	PSOE
Nekane Jiménez Fernández .....	PSOE
Xabier Olabarrieta Arnaiz .....	PP
Fernando Pinto Palacios .....	PP
Antonio Daniel Herrera Torrecilla .....	EB-B-Aralar
Isabel Dolores García García .....	EB-B-Aralar

### **EZ DA BERTARATU:**

Arturo Ignacio Aldecoa Ruiz .....

PP

### **IDAZKARI NAGUSIA**

M<sup>a</sup> Victoria Erkiaga Arangüena

### **KONTU-HARTZAILEA**

Eider Sarria Gutierrez and.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **GORDAILUZAINA**

Jon Bilbao Arberas jn.

## **ITZULTZAILEA**

Xabier Payá jn.

Aipatutako zinegotziek aurretiaz egiaztatu dute euren nortasuna, Hauteskunde Batzordeak emandako egiaztgutunak Udal idazkariari aurkeztuz. Era berean, bateraezintasun kausen, jardueren eta ondare ondasunen aitopenak ere sinatu dituzte, Udalbatzako kideen Interes Erregistroetan inskribatzeko.

Batzarra egiteko legezko kopuru nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, eguneko aztergai-zerrendan azaldutako gaiak aztertu dira, legezko araudian aurreikusita, eta honakoa izan da emaitza:

### **1.- UDALA ERATZEA.**

Lehenengo eta behin Adineko Mahaia eratu da: Hautatutako zinegotzi nagusia den Fernando Pinto Palacios jaunak (Alderdi Popularraren hautagai-zerrendakoa) eta hautatutako zinegotzi gazteena den Nekane Jiménez Fernández andreak (PSOEren hautagai-zerrendakoa) eratu dute. Adineko Mahai horretako idazkaria, indarrean dagoen araudiaren arabera, Udaleko idazkaria izan da, hau da, M<sup>a</sup> Victoria Erkiaga Arangüena andrea.

Ondoren, idazkariak, Leioako barrutiari dagokion JAKINARAZPEN AKTA irakurri du, Bilbo eremuko Hauteskunde Batzordeak bidalita. Bertan, hautagai-zerrenda bakoitzak eskuratutako boto kopurua eta hautatutakoak azaltzen dira, jarraian zehaztu bezala:

<b>HAUTAGAI-ZERRENDAK</b>	<b>ESKURATUTAK O BOTOAK</b>	<b>HAUTATU KOPURUA</b>
Eusko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco	5.321	10
Partido Popular	2.074	3
Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra (PSOE)	3.127	6
Ezker Batua-Berdeak-Aralar	1.130	2
Eusko Alkartasuna	618	
Centro Democrático Liberal	53	



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ondoren egiaztatu da hautatutako hogeitaz zinegotzi etorri direla eta ez dela inolako bateraezintasun kausarik azaldu horiei buruz. Horrenbestez, Mahaiak, Udalbatza berria hautatu dela adierazi du, aipatutako Hauteskunde Batzordeak bidali duen Zenbaketa Aktaren arabera, legezko aurreikuspenak betez. Honakoek osatzen dute:

### **EUSKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV)**

Eneko Arruebarrena Elizondo  
Jesús Bilbao Curiel  
Ainara Urbietta Bergara  
Beatriz Resa Bardeci  
Iñaki Goikoetxea Gordo  
M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González  
Jon Loizaga Cayero  
Jon Peli Lazkano Alzaga  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta  
Ainara Guzmán Urrutia

### **PARTIDO POPULAR (PP):**

Xabier Olabarrieta Arnaiz  
Arturo Ignacio Aldecoa Ruiz  
Fernando Pinto Palacios

### **EZKER BATUA–BERDEAK–ARALAR (EB-B-ARALAR)**

Antonio Daniel Herrera Torrecilla  
Isabel Dolores García García

### **PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI–EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)**

José Manuel Toledo Cañamero  
Elsa López de Torre Campo  
Luis María Pérez Pérez  
Pilar Grados García  
J. Alfonso López Arevalillo  
Nekane Jiménez Fernández

Ondoren, Mahaia eratzen duen idazkariak adierazi du, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108-8 artikulua arabera, karguaz jabetzen den momentuan eta euren kargua guztiz hartzeko, hautatutako hautagaiek Konstituzioa onartzen dutela zin egin edo hitzeman beharko dutela.

Horretarako, Adineko Mahaiko buruak legez ezarrita dagoen zin egin edo hitzemateko formula irakurri du, 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan aurreikusi moduan. Honakoa dio:



**LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA**

**BIZKAIA**

Zuen kontzientzia eta ohorearen izenean zin egin edo hitzematen duzue Leioako udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak leial beteko dituzuela Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela Estatuko oinarrizko arau gisa?

Ondoren, banan-banan egin die deia hautatutako zinegotzi guztiei, eta horrela erantzun diote egin zaien galderari:

<b>IZEN-ABIZENAK</b>	<b>ERABILITAKO FORMULA</b>
Eneko Arruebarrena Elizondo	Herri burujabearen aurrean nire agindua ondo betetzea zin dagit
Jesús Bilbao Curiel	Bai
Ainara Urbietta Bergara	Bai, zin egiten dut
Beatriz Resa Bardeci	Legeak horrela aginduta, zin egiten dut
Iñaki Goikoetxea Gordo	Legeak horrela aginduta, zin egiten dut
M <sup>a</sup> Carmen Urbietta González	Bai, zin egiten dut
Jon Loizaga Cayero	Bai
Jon Peli Lazkano Alzaga	Bai
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta	Bai
Ainara Guzmán Urrutia	Bai
Xabier Olabarrieta Arnaiz	Bai, zin egiten dut
Fernando Pinto Palacios	Bai, zin egiten dut
Antonio Daniel Herrera Torrecilla	Errepublikazalea naizenez, herri burujabearen aurrean eta legeak horrela aginduta, bai, zin egiten dut.
Isabel Dolores García García	Errepublikazalea naizenez, herri burujabearen aurrean eta legeak horrela aginduta, bai, zin egiten dut.
José Manuel Toledo Cañamero	Bai, hitzematen dut



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Elsa López de Torre Campo	Bai, hitzematen dut
Luis María Pérez Pérez	Bai, hitzematen dut
Pilar Grados García	Bai, hitzematen dut
J. Alfonso López Arevalillo	Bai, hitzematen dut
Nekane Jiménez Fernández	Bai, hitzematen dut

Horrenbestez, Adineko Mahaiko buruak, Fernando Pinto Palacios jaunak, karguaz jabetzeko tramiteak bete ostean, Leioako Udalbatza legez erata dagoela adierazi du.

## **2. ALKATEA HAUTATZEA:**

Gero, alkatea hautatu da, lehen aipatu den Lege Organikoaren 196. artikulua arabera. Izan bere, bertan ezarrita dago udalbatza eratzeko batzarrean alkatea hautatu beharko dela.

Horretarako, idazkariak udalbatzako kideei jakinarazi die alkategaitzat hartuko direla beren zerrenden buru diren zinegotzi guztiak, hautagai-zerrendaren batek ez badu adierazi uko egiten diola alkatea hautatzeko hautagaien bat aurkezteari. Horrela bada, Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra taldeak uko egin dio hautagaia aurkezteari eta, ondorioz, honakoak izango dira Alkatetzarako hautagaiak:

EAJ/PNV: Eneko Arruebarrena Elizondo jn.

PP: Xabier Olabarrieta Arnaiz jn.

EB-B-Aralar: Antonio Daniel Herrera Torrecilla jn.

Zinegotziek ezkutuko bozketa egin dute, horretarako eman zaizkien boto-txartelen bitartez, Mahaiak horretarako deia egin ostean.

Emandako botoak zenbatu dira, eta honakoa izan da emaitza:

Emandako botoak, guztiak baliozkoak: 20

Honakoek eskuratu dituzte:

Eneko Arruebarrena Elizondo jn. .... 10 boto.  
Xabier Olabarrieta Arnaiz jn. .... 2 boto.  
Antonio Daniel Herrera Torrecilla jn. .... 2 boto.  
Boto zuriak ..... 6 boto.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Beraz, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 196 c) artikuluan ezarritakoa betez, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO izendatu da Leioako alkate, iragan maiatzaren 27ko hauteskundeetan herritarren boto gehien eskuratu zuen zerrendako burua dela.

Ondoren, zin egin edo hitzeman behar izan du, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legezko xedapenen testu bateginaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, alkatearen betebeharrak hasi aurretik udalaren osoko bilkuraren aurrean kargua zin egin edo hitzeman behar duela ezartzen baitu.

Horrela, Adineko Mahaiko buruak, zin egin edo hitzemandeko esan dio, honako formula honen arabera:

Zure kontzientzia eta ohorearen izenean zin egin edo hitzematzen duzu Leioako udaleko alkate karguaren betebeharrak leial beteko dituzula Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula Estatuko oinarritzko arau gisa?

Galdera horri erantzuteko, honakoa erantzun du Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak: Herri burujabearen aurrean nire agindua ondo betetzea zin dagit.

Ondoren, Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak alkate kargua onartu du eta, gero, Burutza hartu du. Kargua utzi duen alkateak, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, agintemakila eman dio, bere karguaren ezaugarri.

Ondoren, **Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa esan zien ekitaldira bertaratu zirenei:

Eskerrik asko eta egun on. Adierazi du osoko bilkura honek gai-zerrenda ezarrita daukala, baina udal honetan ohikoa den bezala nolabaiteko malgutasuna dagoela.

Azaldu du osoko bilkura hau berezia dela, apartekoa, aurretiaz ezarritako gai-zerrenda duela, baina berezia et apartekoa denez, idazkariak nolabaiteko malgutasuna izateko baimena eman duela. Horrelako beste bi osoko bilkuratan egon da, hau hirugarrena da, beraz. Aurreko bietatik gogoratzen duenaren arabera, hitz egiteko aukera eman zitzairen taldeetako bozeramaileei, inor behartu gabe, noski, ez du esan nahi botoa azaltzeko zenik, hori argi geratu dela uste baitu, baina bai agintaldia hitz egiteko eskubidearekin hasteko. Beraz, ez da besteak baino gutxiago izango eta aukera hori eman nahi izan die guztiei.

**EB-Berdeak-Aralar taldeko Antonio Daniel Herrera Torrecilla jaunak** honakoa adierazi du:

Eurak lan egiteko eta lankidetzan aritzeko asmoarekin etorri direla azaldu du. Hurrengo osoko bilkuretan gaurkoa baino giro atsegina goatea espero du, Leioaren onerako eta guztion onerako.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hasteko adierazi du Eneko zoriondu nahi duela bere taldearen izenean, eta benetan zorte ona opa nahi diotela, bai berari eta bai bere taldeari.

Ondoren zorionak eman ditu alkatea hautatu delako, eta labur-labur eskerrak eman nahi izan dizkie azken hauteskudetan euren taldean, euren alderdi politikoan, konfiantza izan duten leioazarrei. Era berean esan du adierazi duten konfiantza horri zintzotasun eta erantzukizunez erantzuten saiatuko direla eta euren taldeak posible duen guztia emango duela askatasuna defendatzeko Euskadin, Bizkaian eta Leioan, bai eta Leioa hobetzeko eta Leioako herritar guztien bizimodua hobetzeko ere.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Lehenengo eta behin agur esan die Karmelo Sáinz de la Mazari, Bixente Barreirori, Susana González, Maria Nieves Hurtadori, Rubén Belandiarri eta Iñaki Gomendiorrutiari, eurak direla osoko bilkuran ikusten dituenak. Agur txikia dela azaldu du, areto honen barrukoa baino ez delako, baina era berean, kaixo handia ere bada, gainerako guztian erabiltzeko.

Modu berean adierazi du eskerrak eman nahi dizkiela Leioako herritarrei hemen egoteko aukera eman diotelako, azken batean eurak baitira botoa eman dutenak. Halaber, eskerrak eman nahi izan dizkie programa egiten lagundu dieten herritarrei, Herriko Etxea antolatu duten herritarrei, ikuskatzaile eta ahaldun lanetan aritu ziren herritarrei, euren guztiei esker izan baitute bertan egoteko eta gehiago egoteko aukera; hori guztia dela eta, benetan eman nahi dizkie eskerrak.

Leioan eta Leioarentzat lan egiteko asmoa dutela adierazi du, eta horretarako baino ez dute lan egingo. Argi eta garbi azaldu dute hori hauteskudeetan, eta konpromiso horri utsiko diote.

Amaitzeko, zorionak eman dizkio alkateari, bai bere izenean bai bere talde politikoaren izenean, zorionak eta zorte on. Beste alde batetik azaldu du zazpi sozialista egonda gauzak hobeto joan beharko direla udalean.

**EAJ-PNVko Jesús María Bilbao Curiel jaunak** honakoa adierazi du:

Eurak laguntzera etorri direnentzat aldebereko itzulpenik ez dagoenez, gaztelaniaz eman dizkie eskerrak egun zail eta garrantzitsu honetan osoko bilkura honetara etorri direnei. Hori dela eta, bere ustez talde guztien izenean eta bere izenean ere, eskerrak eman dizkie guztiei.

Bigarrenez, eskerrak eman nahi izan dizkio aurreko Udalbatzari eta, izen guztiak banan-banan ez aipatzearen, oso modu berezian aipatu du Karmeloren izena. Eurentzat laguna, kidea eta nagusi eredugarria izan da eta, horregatik, besarkada bat eman nahi izan dio bere taldearen izenean.

Talde berria direla esan du, nahiko talde gaztea bere kasuan eta beste batzuen kasuan ere; gazteak dira, bihotzez behintzat, eta hori dioenean ez du topiko moduan esaten, berak bihotz gaztea baitauka.

Azaldu du taldean lan egiteko gogoekin etorri direla eta, euren taldearen ohiturei jarraituz, herriaren alde eta herritik hurbil egingo dutela lan. Era berean, espero du Leioako Udalaren ohitura den beste jokabide bat ere mantendu ahal izango dela, hau da, alderdi politikoaren arteko harreman higienikoa. Uste du horretan agian hobetu ahal izango dutela; aretoan bertan beti Leioako espirituaz hitz egiten duen lagun bat ikusi du eta, agian, Leioako espiritu hori euren arteko harremanak zaintzea izan liteke. Era berean, gainerako alderdi



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

politikoekin akordioak lortzeko eta ereduzko Udalbatza izateko asmoa dute, bai eta, bere ustez, gaitasuna ere.

### **EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du egun hauetan aukera egon dela, berari semeak ixten diona, momentu batzuetan, gauez behintzat, pixka batean telebista ikusteko. Bertan, ekainaren 15eko efemerideak ikusi ahal izan ditu, berrogei urte luzeren ostean demokrazia berrezarri zenetik 30 urte igaro direnean. Azaldu du gaur ere 30 urte horien atala dela, hau da, katea ez dela eten, eta gaur hemen daudela euren aurretik Txomin Aresti, Iñaki San Juan, Miguel Angel Ariño eta Karmelo Sáinz de la Maza egon direlako, bai eta Gobernu Taldeetan zein oposizioan eurekin batera egon diren zinegotzi guztiak egon direlako ere, guztiak Leioa 30 urte hauetan izatera iritsi dena izateko asmoaren bitartez elkartuta.

Adierazi du une honetan jende askori eman nahi dizkiola eskerrak, baina batez ere, nola ez, Karmelo Sáinz de la Maza Arrolari. Aitortu du egia dela duen aginte-makilak leinuaren indarra ematen duela, eta badirudiela makila ematen dizutenean eskuak dar-dar apur bat egiten dizula eta oilo-ipurdia ipintzen zaizula. Baina Karmelo Sáinz de la Maza buruz esan dezakeen gauzarik handiena da zortzi urte egon dela berarekin eta zortzi urte hauetan alkatea dela sentitu duela; egia esan, ez zuen makilaren beharrik alkatea dela sentitzeko. Zortzi urtez egon da alkatearekin lanean, atzo bertan esan zion berari, eta zortzi urte hauetan ez dio, alkatea ez izanagatik, ezer egiteari utzi. Izan ere, alkatearekin batera elkarlanean aritu den Gobernu Talde bietan egin nahi izan duten guztian, alkatearekin egon den zortzi urteetako egun guztietan sentitu du bera ere alkatea dela, eta ez du jarduneko alkate izan behar izan alkatea dela sentitzeko.

Gaurko osoko bilkura berezia dela azaldu du eta, norbaitek esan duen bezala, pixka bat arraroa. Modu berean adierazi du egia dela herri honen aniztasuna islatzen duela horrek, hemen barruan daudenak zein kanpoak daudenak, bai eta zin egin edo hitzemandeko erabili diren modu ezberdinak, herri honen aniztasunaren isla baitira. Egia dena da, gaur hemen barruan egon direnei dagokienez behintzat, Leioaren alde eta leioaztarrentzat lan egiteko gogo eta beharrak bultzatuta etorri direla, bera ustez.

Amaitzeko eskerrak eman dizkie guztiei, eta gaur 2007-2011 agintaldia (baina ez legegintzaldia) hasi dela, eta osasunez eta arrakastaz amaitzea nahi duela adierazi du.

Gero, idazkari nagusiak, bere izenean eta udaleko beharginen izenean, ondoetorria emon deitso Udalbatza barriari eta, modu berean, zorionak emon deitsaz Eneko Arruebarrena alkateari.

### **3. ZENBAKETA AKTA ETA ONDASUNEN INBENTARIO NAGUSIA AZTERTZEA**

Ondoren, Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 36.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Zenbaketa Aktaren jakinaren gainean geratu da udalaren osoko bilkura. Honakoa da emaitza:

	<b>AURREKONTUA</b>	<b>ESKU-DIRUTAN</b>	<b>BALOREETAN</b>
--	--------------------	---------------------	-------------------



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

<b>2007-01-01ean zegoena</b>	20.465.519,97 □	1.046.530,06 □	27.456.111,61 □
<b>Diru-sarrerak</b>	18.598.358,22 □	50.119.505,28 □	395.821,27 □
<b>BATURAK</b>	39.063.878,19 □	51.166.035,34 □	27.851.932,88 □
<b>Ordainketak</b>	14.193.825,04 □	50.289.334,88 □	351.678,33 □
<b>2007-06-16an dagoena</b>	<b>24.870.053,15 €</b>	<b>876.700,46 €</b>	<b>27.500.254,55 €</b>

	KUTXA	BBK-ko KONTUAK	BBVako KONTUAK	SCH	IPAR KUTXA
<b>Lehen zegoena</b>	2.009,51	865.561,44	473.672,61	20.847,64	48.855,49
<b>Diru-sarrerak</b>	392.681,12	42.548.936,95	156.193,91	2.271.308,72	395,47
<b>BATURAK</b>	394.690,63	43.414.498,39	629.866,52	2.292.156,36	49.250,96
<b>Ordainketak</b>	391.225,04	42.210.619,83	554.947,47	2.270.000,00	0,00
<b>2007-06-16an DAGOENA</b>	<b>3.465,59</b>	<b>1.203.878,56</b>	<b>74.919,05</b>	<b>22.156,36</b>	<b>49.250,96</b>

	LA CAIXA	B. GUIPUZCOANO	EUSKADIKO KUTXA	INBERTSIOAK
<b>Lehen zegoena</b>	32.980,49	16.190,31	2.834.499,23	17.217.433,31
<b>Diru-sarrerak</b>	1.317.755,25	429.966,42	1.582.682,28	20.010.900,38
<b>BATURAK</b>	1.350.735,74	446.156,73	4.417.181,51	37.228.333,69
<b>Ordainketak</b>	1.290.000,00	446.000,00	901.824,58	16.411.500,00
<b>2007-06-16an DAGOENA</b>	<b>60.735,74</b>	<b>156,73</b>	<b>3.515.356,93</b>	<b>20.816.833,69</b>

Modu berean, Udal Ondasunen Inbentario Nagusiaren berri ere eman zen. Honakoa da bere laburpena:

**UDALAREN INBENTARIOA**

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA 2007/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2007/07/16
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	97.486.915,06	429.993,84	0,00	0,00	97.916.908,90
Lurrak	10.104.379,77	0,00	0,00	0,00	10.104.379,77
Eraikinak	35.481.770,43	0,00	0,00	0,00	35.481.770,43
Higiezinetakoa hobekuntzak	5.886.690,78	67.471,71	0,00	0,00	5.954.162,49
Instalazioak	100,00	0,00	0,00	0,00	100,00
Herri bideak	46.013.974,08	362.522,13	0,00	0,00	46.348.619,18
2. Eskubide errealak	4.167.124,90	0,00	0,00	0,00	4.167.124,90
3. Higarri historiko-artistikoak	596.637,85	137.405,89	0,00	0,00	734.043,74
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	159.461,83	21.698,27	0,00	0,00	181.160,10
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	3.340.157,85	178.067,75	-2.045,26	1.193,07	3.517.373,41
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45	0,00	0,00	0,00	501.046,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.251.343,94</b>	<b>767.165,75</b>	<b>-2.045,26</b>	<b>1.193,07</b>	<b>107.017.657,50</b>

**LURZORUAREN UDAL INBENTARIOAREN SEPARATA**

EPIGRAFEA	HASIERAKO SALDOA	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	EPIGRAFEA, GUZTIRA
Ondasun	14.129.003,41	0,00	0,00	0,00	14.129.003,41



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

higiezinak eta herri bideak					
Eskubideak	3.776.403,94	0,00	0,0	0,	3.776.403,94
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.905.407,35</b>				<b>17.905.407,35</b>

**EUSKARAREN ERAKUNDEA**

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2006/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2006/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	138.981,42	1.270,78	0,00	0,00	140.252,20
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>128.302,43</b>				

**SOINU-ATADIA FUNDAZIOA**

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2006/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2007/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	264.637,61	5.063,43	0,00	0,00	269.701,04
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>264.637,61</b>				



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udalaren osoko bilkura inbentarioaren jakinaren gainean geratu da, arestian aipatu diren zenbatekoen arabera.

Batzarra amaitu aurretik, **alkate-udalburuak** berriro hitz egin du, honakoa esateko: ohikoa den bezala, Leioaren intsignia ipiniko zaie zinegotziaren ardura gaur lehenengoz hartu duten guztiei. Horrela bada harrotasunez eta, era berean, apaltasunez eramango dutela espero du, batzuetan harro izateko eta harrotasunez jokatzeko unea delako, eta beste askotan Leioaren alde apaltasunez lan egiteko unea delako.

Horrek itsu ez ditzala esan die, jadanik duten guztiei itsutu ez dien bezala. Uste du oraintxe bertan osoko bilkurako hamar pertsonak dutela intsignia, eta beste hamaikak jasoko dute orain. Berriro esan die duintasunez eta apaltasunez eraman dezatela.

Gauzak horrela, aztergai-zerrendan ez dagpenez aztertzeko beste gairik, goizeko hamaikak direnean, Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA,

IDAZKARIA,